

Uztaritzeko herriko etxea epaitegiatarako bidean da euskara ofizial izendatzeagatik

USKARA, gure herriko eta lurralde honi (Euskal Herria) izena ematen dion hizkuntza dela, baina euskaldunen hizkuntza eskubideak, gaur arte, ezagupen ofizialik gabe daudela kontuan harturik, Herriko biltzarrak azalpena entzun eta eztabaidatu ondoren, euskara herriko hizkuntza ofiziala izendatzen du frantsesaren hein berean”. Erabakiak lau boto kontra, hiru zuri eta 22 alde izan zituen ekainaren 26ko herri kontseiluan.

Erabaki ausarta da halakorik aldarrikatzea, Frantziako Estatuak euskara hizkuntza ofizialtzat ez duela kontuan izanda. Estatuak teoria praktikara eramateko ahalegin ugari egiten du; hor dira suprefetaren eta prefetaren jarrerak Seaskako ikastolak direla eta. Ezin gutxiago espero: Patrick Dallennes Baionako suprefetak azaldu duenez, “epaitegi administratibora igorriko da tarterik ahalik eta laburrenean eta zuzenenean, eta berehalako auzi prozedura egingen da”. *Sud Ouest* egunkariari esan dioenez, ziur da erabakia bertan behera geratuko dela.

Suprefetak Uztaritzeko herriko etxeari lepotik heltzen dion bitartean,



Goian Patrick Dallennes, eta behean Carlos Urquijo.

Espainiako Estatuako Carlos Urquijo estatu ordezkariak udalei salaketak jartzen segituko du.

Udaletako hizkuntza politikari hiru motatako salaketak egin dizkie: kontratazioetako hizkuntza irizpideak ezartzeagatik; diru-laguntzetako hainbat deialdirengatik; eta herritarrei informazioa euskara hutsez bidaltzeagatik. Euskara ofiziala den lurraldean dabilta gisa horretara.

Bahea

Maika Etxekoparrek Berrian esanak. Kazetariak pastoralak sendo direla adierazi dio:

“Sendoak baino gehiago, handiak dira. Ematen du oso forma onean direla, trenpu onean, baina hori ez da osasunaren marka. Erran nahi du zerbait gure gizarteaz, baina gure kulturaz eta hizkuntzaz ez du deus erran nahi; alderantziz, pastoraletan parte hartzen duten jende gutxi daki euskaraz; maskaradetan zailago, proportzioan jende gehiagok behar duelako jakin euskara. Pastoraletan euskara jakin behar dutenak obra interpretatu behar dutenak dira, haiek derrigor ulertu behar dutelako. Herri gehienetan zaila da aski euskaldun atzematea bi antzezpenetarako.

(...) Kantu batzuetan egin ahal da euskaraz jakin gabe; arazoa, ordea, beste bat da: abestia beste kopia hutsal bat bilakatzen dela, eta, beraz, horren zati bat ez da barneratzen”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Diru publikoaren ibilbidea ikertu behar da

AZKEN ASTEETAN hainbat albiste izan ditugu diru publikoaren ustezko desbideratzeaz. Helburu publikoa zuten hainbat projektutara joan behar luke diru horrek, baina xahutu egin da, dela kudeaketa txarragatik, dela bidegabe eskuratua izan delako. Autogintzaren burbuilaz ari gara, Epsilon eta Hiriko kasuez, baita AHTz ere. Hamarnaka milioi euro desagertu dira diru-kutxa publikoetatik. Autogintzan 60 milioi euro xahutu dituzte, eta AHTn are gehiago. Ustelkeria, funtsen bidegabeko eralgitzea eta prebrikazioa atzeman dira.

Autogintzan gertatu dena argitzeko, ikerketa parlamentarioaren unean gaude orain; AHTren eta Hirikoren kasuan gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian (EAEAN) salaketak jarrita ditu EH Bilduk eta tramitazioan daude. Kasu horiek ikerketa serioa eskatzen dute, sakona eta neutrala, kudeatzaile zibil eta politikoei egindako irregulartasun-

ak argitzeko. EAJk eta jeltxideen esku dagoen Eusko Jaurlaritzak ezin dute beste albo batera begiratu, auzi guztietan baitaude inplikaturak. Euren —eta kudeaketan aritu diren— izen onagatik lehenak izan behar luke ikerketa neutrala eskatzen eta erantzukizunak depuratzen. Milioika euro daude jokoan. Baina jeltxideek eman dituzten urratsak ikusita ezin liteke esan interes handia dutenik. Bateren batek aurpegia izan du esateko, bera Jaurlaritzan zegoenean, ez zegokiola proiektu horien kudeaketa kontrolatzea.

Erantzukizuna EAEANko fiskaltzarenean ere bada; gertaeren inguruko salaketa tramitatu ari da, baina halako kasuak izaten direnean ofizioz jardun behar luke. Espero dugu diru publiko horren ibilbidea ikertuko duela, kosta ahala kosta.

Juan Mari Arregi

